

**DEPARTAMENTUKO BATZORDE IRAUNKORRAK 2022ko
ABENDUAREN 16an OSPATUTAKO OHIKO BILERAN LORTUTAKO
AKORDIOAK**

1. 2022ko abenduaren 16ko bileran jasotako Departamentuko Batzorde Iraunkorraren akta onartzea.
2. Departamentuko Zuzendariak jakinarazi du, Departamentua UPV/EHUK Ikerketarako Azpiegiturak erosteko ireki duen deialdi berrira aurkeztuko dela. Deialdi honek bibliografia eta kostu handiko aparatuak erosteko aukera ematen du.
3. Jarraian aurkezten diren lanpostuak sortzeko eskaerak onartzea:
 - a. Ricardo Miralles irakaslearen erretiroaren ostean libre geratu den lanpostua: Lan Harremanen Fakultatean Irakasle Atxikia, hirueleduna, Lan Harremanen Historiako profilarekin.
 - b. Joseba Agirreazkuenagaren lanpostua (Gizarte Zientzien eta Komunikazioaren Fakultatetik Letren Fakultatera) Unai Belaustegiren lanpostuagatik (Letren Fakultatetik Gizarte Zientzien eta Komunikazioaren Fakultatera) trukatzeari.
 - c. Joseba Agirreazkuenagaren erretiroa baliatuz, Irakasle Atxikiaren lanpostua eskatzea Letren Fakultatean: elebiduna eta Mundu Garaikidearen Oinarriak profilarekin.
 - d. Nere Aresti irakasleak lortutako akreditazioari erantzunez, Irakasle Ikertzailearen lanpostua sortzea.
4. Aurrez aipatu diren Irakasle Atxikiak ebaluatzeko bi tribunalen osaketa erabakitzea. Bi tribunalok kide berberetz osatuko direla adostu da. Zozketa egin ostean, emaitza ondokoa izan da:
 - a. Tribunal titularra: Mikel Urquijo (presidentea), Susana Serrano (idazkaria), Unai Belaustegi (bokala), Txema Portillo (bokala), Coro Rubio (bokala).
 - b. Ordezko tribunalak: Antonio Rivera (presidentea), Santiago de Pablo (idazkaria), Mercedes Arbaiza (bokala), Javier Díaz Freire (bokala), Miren Llona (bokala).
5. Joseba Agirreazkuenagak Irakasle Emeritu izateko aurkeztu nahi duen hautagaitzari bermea eskaintzea.
6. José Luis de la Granja eta Santiago de Pablo irakasleek, Ricardo Miralles irakasle ohiari omenaldia egiteko aurkeztu duten proposamena onartzea.
7. Departamentuko irakasle batzuek irakaskuntza merituak ebaluatzeko (bosturtekoak) Departamentuari eskatu dioten txosten positiboak onartzea.

